



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EHUN ZUBIGILE HEZKUNTZA SISTEMAREN ETORKIZUNA ELKARREKIN LANTZEN

Foroaren emaitza txostena



2021/09/11

9:30-14:00

Eureka! Zientzia Museoa

AURKIBIDEA

1	ONDORIO NAGUSIAK	3
	AKTAREN SINTESIA	3
	SARRERA	3
	HEZKUNTZA, ANIZTASUNA BERDINTASUNEAN	4
	HEZKUNTZAREN ANTOLAMENDUA.....	4
2	HAMABOST LAN TALDEETAN EGINDAKO EKARPENAK	7
	HEZKUNTZA, ANIZTASUNA BERDINTASUNEAN	7
	HEZKUNTZAREN ANTOLAMENDUA.....	11
	HEZKUNTZA EZAGUTZAREN GIZARTEAN	16
3	BALORAZIOA	21

I ONDORIO NAGUSIAK

AKTAREN SINTESIA

Sarrera

Gizarteak, aldaketa handiei ez ezik, etengabeko aldaketen abiadura bizkorri ere egin behar die aurre. Ziurgabetasun egoeran bizi gara. Eta aldaketa horietara egokitzeko hezkuntza-sistemaren gaitasuna ezbaian dago. Errealitate honek eta erronka globalek eskatzen dituzten galderak eta erantzunak topatzeko zailtasunak ditugula onartu da foroan.

Korrante globalizataileen norabideak irakurtzeko, aldaketen azkartasuna ulertzeko eta gure herria dinamika horietan ongi kokatzeko, egungo errealitatea hobetuko duten tresna eraldatzaileak sortzea beharrezkoa dela azpimarratu da.

Hezkuntza gizarte eraiketa da, gizarte antolatzeko moduaren ideia-sistemaren parte. Hezkuntza sistema gizarte bera eta guztion bizi-baldintzak hobetzeko palanka izan dadin, egungo ideia-balio sistema itaundu beharko genuke etorkizuneko hezkuntza sistemak nondik joan beharko luken adosteko.

Eginkizun horretan gizarte osoa inplikatu beharko duten dinamikak sustatu beharko lirateke, partehartzaileen iritzian. Eta tresna eraldatzaile horiek tokitik eta tokiko erantzunak bilatuz sortuko dira, sortzekotan. Horretarako, hezkuntza –formala eta ez-formala–, erdigunera ekarri beharko genuke eta, aldi berean, ezagutza komunitarioa eta pentsamendu kritikoa garatu.

Honi guzti honi aurre egiteko unean beste hiru gako kontuan hartu beharko ditugula gogoratu da:

- lurraldetasuna aintzat hartzea,
- belaunaldien arteko komunikazioa sustatzea eta,
- governantza horizontal eta partekatua sendotzea.

Euskal Herriaren argazki osoa behar dugula azpimarratu da, eta argazki horrek erakusten dizkigun gabeziak eta bertuteak elkarrekin aztertzeko asmoa, lehenak, ahalik eta azkarren konpontzeko, eta bigarrenak are gehiago sendotzeko. Horretarako, euskal lurralde desberdinen arteko elkar ezagutza sustatzea ezinbestekoa da. Errealitate desberdinak lotzeko partekatutako lan-eremu gehiago behar ditugu, beraz, eta euskara konexio ezin hobea da xede horri dagokionean.

Bigarrenik, belaunaldien arteko komunikazioa eta gazteen ahotsa kontuan hartzea ezinbestekoa dela aipatu da. Ez belaunaldien arteko egiturazko arazo gisa ulertzen delako, baizik eta “garaia” ez ditugulako partekatzen, belaunaldi desberdinen esperientziak, bizipenak eta ikasitakoak edo ikasten ari garenak ez dutelako bat egiten denboran, etengabeko errealitate aldakor eta bizkor honetan, are gutxiago. Gazteen bizitza proiektuak, etorkizuna bera hipotekatzeko arriskua daukagu egungo errealitatea hobetuko dituzten tresna eraldatzaileak ez baditugu sortzen. Ikaslea zentroan kokatzeko, subjektu politiko gisa ulertu behar dugu, ez bezero gisa.

Azkenik, governantza eredu komunitarioa bultzatu beharra aipatu da aldaketaren “nolakotasunari” erantzun egokia eta bidezkoa eman ahal izateko. Kultura demokratikoan sakontzeko premia dagoela esan da, parte-hartzeko kultura sustatzeko premia, alegia, behar den ezagutza komunitarioa eta pentsamendu kritikoa garatu ahal izateko. Kultura hori zehazteko zein bide erabili beharko den adostu beharra dago.

Hezkuntza, aniztasuna berdintasunean

Euskal Herri mailako **aniztasuna eta berdintasunaren definizio partekatuaren** beharra azpimarratu da. Aniztasuna modu zabalean ulertzeko premia dugu, errealitate anitzak ulertzeko premia. Aniztasuna berdintasunean kudeatzeko printzipioak/oinarriak adostu beharra eta aniztasuna lantzeko erabiltzen diren metodologiengatik inguruko gogoeta kritikoa beharrezkoak direla aipatu da. Nolaketasunak argitu behar dira, kritikotasuna definitzeko, teoriarik eta praxiarik sortzen diren kontraesanak gainditzeko, segregazio eta eskusio egoerak ekiditeko. Definizio eta diagnostiko partekatuak behar dira.

Sistema inklusiboagoa eta bidezkoagoa izan dadin, aldaketa sakonak behar dira. Horretarako, **komunean partekatu eta sustatu nahi ditugun baloreak definitu** behar ditugu. Gure gizarte ereduaren ideia-balio sistema kritikotasunetik itauntzeko premia dugu, behar dugun gizarte ereduaren definitzeko eta, horren arabera, aniztasunaren integrazio-ereduaren gainean gogoeta sakona egin dezagun.

Diskurtso konpartituak helburu izanik, **belaunaldien arteko komunikazioa** beharrezkoa izango da, baita **lurraldetasuna** kontuan hartzea, lurralde desberdinen arteko elkar ezagutza sustatzeko, **Euskal Herriaren argazkia** ikusarazteko eta bateragarritasunak identifikatzeko.

Aniztasuna eta berdintasuna praktikan sendotzeko **hezkuntza ereduaren artean gertutasuna** bermatu behar dela esan da, baita **ebaluazio-moduak, curriculumak eta edukiak** moldatzeko beharra ere, adostutako diskurtso partekatuan oinarrituta.

Honetaz gain, **baliabideak behar direla** azpimarratu da: finantzazioa eta formakuntza. Baliabide gisa aipatzen dira ere hezkuntzari eskaini beharreko espazioa eta denbora. Zentzu honetan, akordioetan oinarritutako sakoneko definizioak eta diagnosi partekatuak garatzeko ezinbestekotzat hartzen diren **hausnartzeko (g)uneak**.

Hezkuntzaren antolamendua

Sustatu nahi den ereduak **hezkuntza-sistema erdigunean** jarri nahi du. Ezagutza komunitarioa eta hezkuntza komunitatea sendotu nahi duen eredu. Horretarako, Euskal Hezkuntza Sistemaren antolamenduaren eredu berriak adosteko, **governantza eredu komunitarioa eta horizontala garatzeko proposamenak** jaso dira.

Aipatzen diren ereduak sortzeko, garrantzia eman zaio munduko hezkuntza ereduak aztertzeari. Baina gako gisa agertzen den erronka **adostasun soziala** da, **eskola eta komunitatea uztartuz lortu daitekeena**. Ulertzen baita, tokiko errealitatearen premiei erantzungo dion hezkuntza –formala eta ez-formala–, hobetsi behar dela eta hezkuntza proiektua komunitatetik sortu eta garatu behar dela. Eskolaren espazioa hartuz komunitatearen parte-hartze gune gisa.

Erronka honi aurre egiteko **Euskal Herriko lurralde guztietan funtsezko ardatzak adosteko beharra aipatu da**. Lurralde desberdinen arteko lan-eremu honen irekierak, etorkizuneko erantzunak bilatzeko gune emankor gisa aurkeztu da, errealitate desberdinak ezagutza iturri gisa hartuz.

Saretze prozesuari lehentasuna eman zaio. Hezkuntza erdigunean jartzeko sare indartsu bat gizarteko eragile guztiekin: enpresa, hezkuntza eragileak, gizarte zerbitzuak, kale-hezitzaileak, gazteekin lan egiten duten erakundeak, finantzazio-iturriak, kultur taldeak, herri

mugimenduak, gurasoak, ikasleak, irakasleak... Hezkuntza komunitate sendo eta aktiboak errotuz, hezkuntza proiektua ikuspegi komunitario batetik landuz.

Testuinguru honetan, **autonomia** sarritan agertzen den kontzeptua da. **Herri mailako hezkuntza (eta hizkuntza) plan integralak** behar direla esan da. Marko komun bat oinarri, edo helburu eta printzipio bateratu batzuen aterkipean, eskola-komunitateen autonomiaz eztabaida partekatua bideratzeko beharra aipatu da. Honetan, ikastetxeen autonomiaz gain, kudeaketa ikuspegi batetik, **udalen rol garrantzitsua** azpimarratu da. Tokiko errealitatea ezagutzen/bizitzen duen komunitateek **baliabideak** beharko dituzte ezagutza komunitarioaren garapenerako.

Autonomiarekin batera **antolamendu horizontala** kontzeptua aipatu da ere. Batetik, gobernantza partekatua edota publiko-komunitarioa garatzeko, bestetik, hezkuntza-sistemak horizontalagoak garatzeko, hasi hezkuntza-politiken definiziotik eskola antolaketara arte. Honetan, ikasleen presentzia handitzea ezinbesteko ikusten da intereseko parte-hartze espazio eraginkorrak sortuz. Garrantzitsua izango da gazteen begiradatik diseinatzea gune hauen sorrera.

Hezkuntza proiektuen mesederako, bi gako aipatu dira: **Ikastetxeetako lantaldeak egonkortzeko eta denboran iraunkorrak izateko beharra** eta **zuzendaritzarako trantsizioa bermatzea**. Kolaborazioan eta parte-hartzean formatutako ekipo eta lidergo indartsuak eta egonkorak behar direla esan da. Heziketa guneetako arazoek-egoerek behar dituzten erantzunak komunitatearekin batera bilatu beharrekoak dira; garrantzia eman zaio arazoei modu integratuz erantzuteko egituren antolaketari eta lidergo ereduari.

Erantzunak bilatzeko, **governantza eredu komunitarioa** bultzatu behar dela esan da, agente desberdinen ahotsa kontuan izanik. Kultura demokratikoan sakontzeko premia dagoela gogoratu da, parte-hartzeko kultura sustatzeko premia, behar den ezagutza komunitarioa eta pentsamendu kritikoa garatu ahal izateko. Kultura hori zehazteko zein bide erabili beharko litzatekeen adostea komeni da.

Irakasleak eta ikasleak parte-hartzearen kulturaren prestatzeko, lidergo horizontalerako pertsonak formatzea erronka gisa planteatu da. Honela, kultura demokratikoan sakontzeak, arazoei aurre egiten eta gatazkak kudeatzen lagunduko luke.

Euskarak lotune elementu gisa presentzia izan du ekarpenetan. Hezkuntza euskaraz hausnartzeko eta garatzeko premia aipatuz; formazio komunak eta mugaz-gaindiko ikasketen ekibalentziak lantzea eta, mugaz-gaindiko irakasleen formazioa esaterako, gakoak dira. **Euskara eta euskal curriculum-aren kudeaketa** egingo duen egitura baten beharra aipatu da ere.

Euskal Herriko hezkuntza antolaketaren inguruan hitz egitea ez dela erraza aipatu da. Ipar Euskal Herria eta Hegoalderen artean desberdintasun handiak daudelako. Eztabaida horretatik ondorioztatu da, **publikotasunaren kontzeptuaz hausnartzeko beharra** dagoela, baita interes soziala duten eskolak identifikatzea ere.

Hezkuntza ezagutzaren gizartean

Gizarteko gai garrantzitsuen aurrean **kritikotasunez hausnartzeko, kokatzeko eta hauek eraldatzeko tresnak** eman behar ditu hezkuntzak. Hezkuntzak gogo hori piztu behar du. Horretarako, gizarte globalizatuak eta super informatuak jartzen dizkigun erronkei aurre egiteko ardatzak identifikatzeko eta garatzeko tresnak behar ditugu. Eta tresna horiek, arestian aipatutako komunitatearen baitako elkarlanean garatu beharko dira.

Behar dugun gizarte eredu, herri gisa nola proiektatu nahi dugun, nola nahi dugun hezituak izan, erabaki beharko genuke. **Gizarte-eraldaketa helburu duen ezagutza sortzeko egiturak edo bilguneak sortu behar gaude eta horretarako baliabideak jarri beharko dira.** Ezagutzaren eraikuntza kolektiboaz ari gara, gaia politikoa eta etikoa baita.

Hortaz, moldeak aldatzea, eraldaketa, beharrezkoa da. Eraldaketa honetarako, **pertsona jarri behar da erdigunean** ez edukia. **Gaitasun sozialak** garatzean dugu erronka; harremanetarako gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna, gatatzak kudeatzeko gaitasuna, kritikotasunez hausnartzeko eta informazioa kudeatzeko gaitasuna. Pertsonaren garapen intelektuala, emozionala eta soziala maila berean landu behar dira. Gizarte arazoak hezkuntzan proiektatzen dira eta erantzunak landu gabe daude. Tokiko errealitatearen ezagutza komunitarioaren garapenak eta pertsona erdigunean jartzeak lagunduko digute erantzunak bilatzen. **Ezagutzaz ari garenean, izateaz ari gara.** Izate pertsona eta izate kolektiboa.

Beharko ditugun gaitasunak aztertzerakoan, **ezagutza eta konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-ereduak** kontra jarri agertzen zaizkigu. Etorkizuna gero eta zalantzarriagoa bada, etengabeko aldaketen abiadura gero eta bizkorragoa bada, nola nahi dugun hezituak izan galderari erantzun beharko diogu: zer hobetsi behar da? **egokitze gaitasuna edota baldintza desegokiak eraldatzeko gaitasuna?**

Curriculumaz hitz egiten denean, ezagutza ikuspegi zabal batetik ulertu behar dela esan da. Edukiez gain, errealitatean-esperientzian oinarritutako autoezagutza: pertsonala eta komunitarioa. Honetan, pentsamendu sinbolikoan eta kritikotasunez hausnartzeko gaitasunetan sakontzeko, **humanitateen, gizarte zientzien eta sorkuntzaren aitortza** egin behar da eta berauek hezkuntzan **galdu duten lekuaz birpentsatzea, erdigunean koka daitezen.**

Teknologien paperaz hausnartzearen beharra mahai-gaineratu da ere. Ez bakarrik birtuala eta ez birtualaren arteko uztarketari dagokionean, baita irizpide etiko eta demokratikoaz pentsatu beharra ere. Ikaskuntza prozesuetan teknologien erabilera baliotsuagoa, esanguratsuagoa bultzatzeko irakurketa kritikoa egin beharko genuke.

Eraldaketa honetan, **unibertsitatearen funtzioaz** ere hitz egin da. Akonpainamendua egin beharko luke, ikerketak sustatu, proiektu `pilotuak planteatu... gizartearen eta familien inplikazioa hasieratik bermatuz, hau da, ikerketa proiektuen diseinutik garapenera erresistentziak eta beldurrak uxatzeko helburuarekin.

2 HAMABOST LANTALDEETAN EGINDAKO EKARPENAK

Jarraian, EHUN zubigile hezkuntza sistemaren etorkizuna elkarrekin lantzen foroan hamabost lan taldeetan egindako ekarpenak zabal jasotzen dira, saioak izan zuen hezurdura nagusia aintzat hartuz.

Hezkuntza, aniztasuna berdintasunean

ABIAPUNTUZKO GALDERAK

- Zein da gure hezkuntzaren norabidea?
- Zer nolako gizartea eta herritarrak nahi ditugu hezi?
- Beste kulturekin solasean, gure hizkuntza, gure kultura eta nortasuna modu iraunkorrean bizitzeko moduz pentsatu, gure baitako askotariko aniztasuna kudeatzeko behar ditugun tresnak landu, beti ere, guztion bizitza duina bermatuko duen jendartea osatzekoa asmoz.
- Gure hezkuntza sistemak garatu behar dituen baloreak eta helburu kolektiboez hausnartu nahi dugu ardatz honetan.
- Gaurko hezi-guneetan, berdinak ala desberdinak dira/gara? Zein gorputz banakako, sozial eta politikotik datoz ezarritako jakintza modu horiek?

Bakarkako fitxetan gehien nabarmentzen diren ekarpenak hauek dira:

PREMIAK:

Aniztasuna kontzeptuan sakondu behar da: esanahia, kokapena. Aniztasunaren definizio partekatua eta bateratua behar da: zer da aniztasuna, ze eremu hartzen ditu. Horretarako aniztasunaren diskurtso konpartitu bat behar dugu, ez gara berdinak eta errespetua behar da. Helburua hau izanik, formazioaren beharra eta belaunaldien arteko komunikazioa ezinbestekoak dira.

Aniztasunaz hitz egiten dugunean ezaugarri sozioekonomikoak, jatorri kulturalak, ezaugarri linguistikoak, genero/sexua, jatorria eta pentsamendu ideologikoak aintzat hartu behar dira. Diagnostiko zabala egin beharko litzateke, errealitate anitzak ulertzeko ahalegina eginez. Aniztasuna modu zabalean ulertzeko premia dugu, EAE, Nafarroa eta Iparralde dugulako, baina horien barruan ere ez da gauza bera Araba edo Gipuzkoa, Donibane Lohizune edo Atharratze edota Elizondo edo Tuteran.. Bakoitzaren aniztasunaren barruan askatasuna izateko eskubidea bermatu behar da.

Hezkuntza munduan askotan fokua ikasle aniztasunean jartzen da eta begirada estamentu guztietara zabaldu behar dugu eta hor lan egiteko ildoak definitu. Aniztasuna aberastasuna bada, zergatik ez da horrela bizitzen? Ikasle guztiak irakasle guztienak dira. Eskola munduan aniztasunean bizitzeko ezagutza eta baliabideak behar ditugu.

Berdintasunean sortu nahi dugun aniztasunaren kontzeptuak porrot egin du, eskolak desberdintasuna sortzen duelako, gizarte-arrakala politikoa delako, eta badirudi adostasun soziala dagoela ez esku hartzeko; gizartea, oro har, eroso dago horrekin. Etorkinei egin beharreko harrerari buruz gogoeta sakona behar da aniztasunari heltzeko; egungoak ez du bermatzen ez euren inklusioa sozial, politiko, ekonomiko, ezta bertakoena ere. Izan ere, ez

gara gai garapen autonomoa lantzeko egungo gizarte aurreratuetan bizitza duina izateko, frustrazio handia ikusten baitugu ikasleen aldetik. Aniztasunaren integrazio-ereduaren gainean gogoeta sakona egin behar da, egungoa ez baita baliagarria. Eskola porrota areagotzen du, horrek dakarren guztiarekin, ikasle guztientzako (etorkinen seme-alaba nahiz bertako).

Berdintasuna helburu eta aniztasuna abiapuntua. Baina berdintasuna zertan nahi dugun definitu beharko genuke gizarte gisa zeintzuk diren lortu nahi ditugun helburu nagusiak zehazteko. Desberdinkeriak identifikatu eta baztertu behar ditugu. Desberdintasunak ez dira desberdinkeriak. Desberdintasunei indarra eman eta diskriminazioak gutxitu beharko genituzke. Berdintasuna eta desberdintasunak sustatu, eragin. Ez gara zerotik hasten, ikasle guztiek/eskola guztiek ez dute abiapuntu bera. Diagnostikoak behar dira.

Ezagutza landu behar da, berdintasunari buruzkoa, batez ere nola bermatu, nola bideratu gatazkak eta horretarako berdintasunaren inguruko aurre iritziak apurtu behar ditugu. Aniztasuna eta berdintasunaren ikuspegi arkitektonikoa landu behar da. Gure eskoletan ze eraikuntza mota, espazio eta bestelakoak honek lagundu edo eragotzi egiten du.

Hezkuntza-sistema erabat inklusiboa sortu behar da, ekitatiboa, hezkuntzak eragina izan baitezake gizartean (zebrabideak, erretzeari uztea, fundamentalismoa islamiarreko arauak eta abar jartzen dira adibide gisa).

Baloreen aldetik, herritar kritikoak behar ditugu, beren kultura ongi ezagutzen duten herritarrak eta kanpoko kulturekin zubiak egiteko gai direnak eta horretarako berdintasunean askatasuna eta elkartasun baloreak eraiki behar ditugu.

Gizartean globalizazioak inposatzen dituen baloreak kuestionatzeko beharra dago: patriarkatua, neoliberalismoa, indibidualismoa.

Balioez, ekitateaz, inklusioaz hitz egin behar dugu, balioetan akordio bat landu. "Hezkuntza-sistema oso segregatzailea dugu"; beraz, premia nagusia gure sisteman dauden segregazio-maila handiak ezabatzea litzateke: (1) familia-egiturek emaitzetan duten eragin erabakigarria, (2) sare publikoan era guztietako zailtasunak dituzten ikasleen pilaketa, (3) ikasleak hautatzeko zeharkako irizpideak. Adabakiak jartzen ari gara

Ez dugu ekitatearekin, berdintasunarekin edo aniztasunari erantzuteko programekin lotutako balioak finkatzeko edo adosteko arazorik, baizik eta gure hezkuntza-jardunbideetan benetako bihurtzeko arazoa.

Abiapuntua da gizartea ez dela inklusiboa, ez berdintasunezkoa, ez ekitatiboa (arrakala sozioekonomikoak, etnikoak, kulturalak, generokoak, sexualitatekoak, lurraldekoak). Hezkuntza aldaketarako eragile gisa ulertzeko beharra dago, baina nola egin horretara eramango duen hezkuntza?

Bide horretatik, komunean partekatu nahi ditugun baloreak definitu behar ditugu eraiki nahi dugun etorkizuna irudikatzeko. Bakoitzari behar duen hori emanez pertsona askeak, kritikoak eta abar izatera iritsi daitezten.

ERRONKAK

Aniztasuna onartu, aniztasunean bizitzen ikasi, kontzientziatik ekintzetara pasa. Jokoan dena da ezberdintasunen gainetik eta aniztasunaren errespetuan, hezkuntza koherentea izan behar dela eta Euskal Herri osoan bateragarriak diren gaiak eta ardatzak landu behar ditugu.

Aniztasuna ez da arazoa, konponbidea da, aurrera egiteko bidea. Zaindu eta garatu behar da. Onartu, desiratu eta ahalbideratu, berdintasunean. Aniztasuna konplexua da, horregatik etengabe hausnartu eta kudeatu behar da, hor dago erronka.

Horregatik pertsona gisa hasi behar gara gaia lantzen: norberak, aniztasuna nola bizi dugun hausnartu, aniztasuna onartu... Geure buruak deskolonizatu behar ditugu (hizkuntza eta hezkuntza), kanpoko ideiei irekita egonda, baina kanpoko inposiziorik onartu gabe. Dibertsitatea ez dago unibertsaltasunaren aurka, alderantziz baizik.

Berebizikoa da profesional desberdinen ahalduntzea gaur eguneko aniztasunen aurrean erantzun ahal izateko eta orain arte egin diren aniztasun programen eraginkortasunari buruzko ebaluazioa egin behar da.

Hezkuntzak eta gizarteak batera erantzun behar dio immigrazioaren gaiari. Hezkuntza-sistemak kontraesana du teoriaren eta praxiaren artean, batez ere publikoan. Erantzun beharreko bi galdera garrantzitsu daude: (1) Zer egiten dugu 14 eta 16 urte bitarteko jendearekin? (2) Nola banatzen ditugu ikasleak ikastetxe publiko-pribatuetan? Ipar Euskal Herrian eta Frantzia ez dago ia bereizketarik.

Berdintasuna lantzeko etorkizunera begira egun dauzkagun hiru Hezkuntza ereduen artean gertutasuna bermatu behar da. Gero eta berdintsuagoak diren ereduak izatea. Eskolara begira aukera berdintasuna bermatu behar dugu, ikasle guztiek abiapuntu bera, ahalik eta gehien gara daitezen pertsona gisa eta gizarteko kide bezala.

Ekitatea sistemaren maila guztietan landu behar da (bai dimentsio sistemikoan, bai ikastetxeen barne mailan) Hezkuntza maila txikiagoetan malgutasun handiagoa dago goi mailakoetan baino. Guztietan malgutasuna lortu beharko genuke gizarte berrira eta aldakorrera egokitu nahi bagara eta bestelako erronkei aurre egin nahi badiegu.

Balioak. Etorkizun hurbilean gure gizarteko balio nagusiak lehenetsi eta hauen lanketa egin behar dugu, hezkuntza munduan nola txertatu beharko litzatekeen definituz Oinarrizko hezkuntza birplanteatu beharko genuke. 14 urtez nahitaez eskolara joan behar da, ibilbide honen amaieran "zuk ez duzu balio" esateko. Hori ezin da izan, ebaluazio modua, edukiak eta curriculum osoa birplanteatu behar dira.

Hezkuntza eta eskola kontzeptuak sinonimotzat hartzeari utzi behar zaio, hezkuntza kontzeptu zabal bezala ulertuz. Hau honela, ahizpatasuna eta anaitasuna beharrezkoak dira, hezkuntza komunitate bezala ulertzeko.

Orokorra

Gizartea aldakorra eta likidoa da; eta oso azkar aldatzen ari da. Azkartasun honen jakitun izan eta honi erantzuteko tresnak sortzea erronka handia da. Gizarte plural honetan, hezkuntza uharte bat izan dadin saihestu behar dugu. Hezkuntza ez-formalarekin, informalararekin, familia sozialarekin batera lan egin behar da. Eskola (formala) konpartimentu estankoa ez izateko, sare ez-formalean oinarritu behar da. Euskal gizarteari eta batez ere, hezkuntza komunitateari ortzi-muga komun bat transmititu behar zaio, uler dezaten horren bidean lan egin behar dugula.

Euskal Herria Txurdiraga auzotik (Bilbo), Azpeitia eta Altxürüküra heltzen dela ulertzea. Arrakalak apur ditzagun norabidea zehazten dugunean. Gizarte osoa inplikaturiko duen dinamika bat sustatu beharko genuke etorkizuneko hezkuntzaren inguruan gutxieneko adostasunera iristeko.

Mundua, planeta, bioaniztasuna, izakiok, gure balore eta praktikak... egoera larrian dira. Egoera eta arazo globalei, baita gure herriak bizi duen egoerari eta dituen erronkei... tokiko erantzunak eman behar dizkiegu. Hezkuntzak paper oso garrantzitsua jokatzen du erantzun honetan. Baina hezkuntza ez da eskola bakarrik, komunitate osoa baizik. Hezkuntza-sistema gaur egun ulertzen dugun moduan, egoera zailean dago. Globalizazioak eta ditugun arazo zein erronkek herri moduan eskatzen diguten erantzunei zailtasunez aurre egiten. Hezkuntza-sistema ardatza izanik, gakoak hauek izan behar dira: hezkuntzari garrantzia eman, erdigunera ekarri; deszentralizazioa, udalak, herriak; bitartekoak, giza-baliabideak, ekonomikoak; komunitatea bere osotasunean eta hezkuntza formala eta ez-formala.

Unibertsitateak eskolarekin lankidetzan jarri behar da, hezkuntza-sistemaren gabeziak detektatzeko eta era aplikatuan ikertzeko eta ondoren irakasleak formatzeko.

Ireki egindako ekarpenak:

Aniztasuna-Berdintasuna ondo kudeatzeko beharrak daude eta horiek modu orokorrean aipatu dira: dirua, baliabideak, formakuntza, ezagutza, hausnartzeko uneak eta guneak, bakoitzari zer eskatu jakitea, printzipioak-oinarriak adostu beharra eta aniztasuna lantzeko erabiltzen diren metodologiengatik inguruko gogoeta kritikoa beharrezkoa dela aipatu da, nolakotasunak argitu behar dira, kritikotasuna definitzeko.

Prozesuen ebaluazioak derrigorrezkoak izan behar dira, gauza asko egin dira gai honen inguruan, baina ebaluatu?

Ohikoa da ardura guztia eskolaren gain jartzea “eskolak arazo oro konpondu behar du”, baina aldaketak eman ahal izateko fokua norbanakoaren gain ere jarri behar da. Aniztasunaren lanketa norberetik hasi behar da, auto-ebaluazioa derrigorrezkoa litzateke.

Azkenik, aniztasunaren inguruan hitz egiten dugunean oinarri batzuk adostea beharrezkoa da, hau oso desberdin ulertu daitekeen kontzeptua delako. Horregatik espazioa eta denbora eskaini behar diogu gai honi, gaur egun dugun diskurtsoa irrealia delako.

Iparra hezkuntzaren jardueran izanik, konbikzioz arituko den **irakasleen** beharra dago. Berrikusteari dagokionez “militantzia” eredura bueltatu beharra dago baina irakasleen egonkortasun falta oztopo dugula aipatu da behin baino gehiagotan. Baldintza duinen beharra dago. Sistemak denbora pasatzea eta gaiak bideratu gabe izatea dakar.

Lehentasunezkoa da agente ezberdinak, udal eta herrialde mailako instituzioak, eskola eta familia, norabide berean jartzea eta osagarriak izatea. Erronka da osagarritasun hori ikusaraztea.

Hiru lurraldeen arteko (EAE, Nafarroa, Iparraldea) bateragarritasuna zein aspektutan eman daitekeen ere aipatu da: 1-Baloreen hedapenean: errespetua, ea 2-Identitatearekin lotutako gakoak: Oroimena adibidez eta ikasleen kurrikulumean: etorkizunerako erronka bezala identifikatzen da azken aspektu hau.

Euskal Herriko argazkiaren beharra dagoela agerian geratu da. Izan ere, hainbatetan Behe-Nafarroa eta Bilbo ez baitaude hain urrun. Argazkia ez izatea gauza interesatu legez ulertzen da. Euskal Herriko hezkuntza orokor bateranzko norabidean jo nahi badugu, lurraldetasuna kontutan hartzea ezinbestekoa da eta lurralde desberdinen arteko elkar ezagutza sustatzea, izan ere, gero eta aldenduago gaude elkarrengandik. Errealitate hauek lotzeko partekatutako lan-eremu gehiago behar dira, non euskarak izan beharko lukeen konexio edo lotura.

Honez gain, oso barneratua zein normalizatua dugu publiko-pribatu banaketa, hala ere beste

PREMIAK

Behar eta helburu batzuei erantzungo dien hezkuntza sistema batean pentsatu behar dela aipatu da behin eta berririo, eskola irekiagoak nahi direla: parte-hartzaileagoak, baliabide gehiago dituenak, prestakuntza altuagoa... eta hau lortzeko ezinbestekoa da eskolen indartze eta babesa.

Hezkuntza-sistemaren **kudeaketa deszentralizatuaren** ideia askok partekatzen dugu eta herritarrengandik hurbila izateko beharra. Ikastetxeen garapena, autonomia eta hortik parte hartzeko kultura sustatu beharra, hezkuntza-komunitateko kide/eragile/kolektibo guztiongan. Delegaziorik ez egoteko, konpromisoa egoteko.

Gure lurraldeko gainerakoekin funtsezko ardatzak adosteko beharra aipatu da. Erronka litzateke gizartean hori adostea: ikastetxeen autonomiaz zer ulertzen den definitzea; autonomia zertarako erantzuteko orduan, zeregin zerrenda zein da?, Irakasleak kontratatzeak?, Hezkuntza-proiektua sortzea eta garatzea?, Zein da hezkuntza-sistemaren helburua?. Ardatz komun batek partekatua izan behar du eskola guztientzat... Ikasleen presentzia handitzea (adinaren arabera) antolamenduan eta erabaki-guneetan, hauek baitira heziketa-prozesuaren zentroa. Izan ere, egun, ikasleek ez dute interesik eta espazio horiek ez dira parte hartzaileak eta erakargarriak ikusten. Herriko eragileak, komunitatea integratu ikastetxearen egunerokoan (familien inplikazio handiagoa, udala, osasun-sistema, gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, euskara-zerbitzua, herri mugimenduak...)

Autonomia sarritan agertzen den kontzeptua da. Hezkuntza proiektuekin lotuta. Gaur egungo antolamenduak ez du ongi laguntzen ikastetxeen lana, ez irakasleen lana, ezta ikasleen hezkuntza-prozesua ere. Deszentralizazioaren beharra, norabide askotan, horien artean bi mailatan: 1. ikastetxearen autonomia; 2. maila lokalean. Era berean, herri mailako hezkuntza plan integralak behar direla aipatu da. Ikastetxeek autonomia gehiago behar dute eta gertuagoko kudeaketa (udalena). Lurralde-antolaketa gaineratik asko dugu, mugarik handiena Espainiako Estatuak da eta horrek goitik asko mugatzen du, "jabetza" horrek eragina du hezkuntzan. Autonomiarekin batera antolamendu horizontala aipatzen da, gobernantza partekatua edota publiko komunitarioa. Parte hartzeko leku guztietatik: familiak, ikasleak, irakasleak zenbait partaidek hezkuntzak arazoei erantzuteko dituzten zailtasunak azpimarratu dira, hau honela zehar lerroak finkatzea eta hauek sakonki lantzeko beharra ikusi da eta *Eskola zuriak* eredu bezala hartu beharko genituzkeela aipatu da, hauek adin desberdinetako umeak etab. nahasten dituztelarik, emaitza onak lortuz.

Sarea talde gehienetan presente egon den kontzeptua dugu. Sareek ekar dezaketen gizarte bereizkeria mahai gainean jarri behar da. Hausnarketa modu eraikitzailean egin behar da. Era berean, hezkuntza mailan saretze prozesu bat emateari lehentasuna ezarri behar diogula aipatu da, baita publikotasunaren inguruko eztabaida bat emateari ere. Sareak eraiki beharko lirateke eskoletatik: elkarrekin, gizarte eragileekin (herri mugimenduak, kultu taldeak, adineko taldeak...), instituzioekin eta bestelakoekin. Gune irekiak izan behar dute hezkuntza zentroak. Herriko hezkuntza eta hizkuntza proiektua herriko eragileekin eraikitzeko lehen urratsak eman behar dira. Hezkuntza arautua eta ez arautuaren arteko zubi lana ere aipatu da behin baino gehiagotan. Ikastetxea ere bere testuingurua txertatzeko premia aipatu da, tokian tokiko bereiztasunak aintzat hartuz.

Ikastetxeetako lantaldeak **egonkortzea eta denboran iraunkorrak** izatea hezkuntza-proiektuaren mesedetan. Horrekin batera, irakasleen kontratazioen prozesua jasangaitza da kalitatezko hezkuntza sistemarekin (mugikortasuna, sendotasunik eza). Honek dakar zuzendaritza eta klaustro sendoak ez izatea eta zentro bakoitzeko hezkuntza proiektua ahula.

Bestalde, hizkuntzak ere presentzia izan du bakarkako ekarpenetan, hezkuntza euskaraz hausnartzeko eta garatzeko, formazio komunak eta mugaz gaindiko ikasketen ekibalentziak. Hemen lurralde historiko ezberdinetako egoera ere aipatu da. Iparraldeko eta Nafarroako egoerei erreferentzia egin zaie. Bertako premiak zerrendatuz. Adibidez, irakasleen formazio Ipar Euskal Herrian, Baionan ikasteko aukera egon dadila.

Baliabideak: administrazioek baliabideen horniketak egitea tokiko errealitatea ezagutzen/bizitzen duen komunitateak behar duena hornituz: euskalduntzea, langileak, formazioa, ratioen berrikusketa aukera. Etengabeko berrikuntza, hobekuntza-sistemak, irakasleen ibilbide profesionalak diseinatu eta berrikusi.

Euskara eta euskal curriculum-aren kudeaketa egingo duen egitura bat. Hezkuntza osoa bere gain hartzeaz gain gainontzeko esparruen kudeaketa egingo duena.

Hezi-guneen arteko lotura: EAEn haur hezkuntzako lehen zikloa hautsita dago, 0-2an bihurtu dute eta ez dago inolako loturarik ondorengoarekin. Jarraipena garrantzitsua da bizitzako lehen etapan.

ERRONKAK

Eredua **hezkuntza-sistema erdigunean** jartzea da. Gobernuek irizpide orokorrak, bitartekoak ezarri beharko lituzkete. Udalak beharko lukete konpetentzia zuzena. Izan ere, eredu deszentralizatu, herri mailako hezkuntza-kontseiluak, diagnostikoak egin, horretarako gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza formala eta ez formala... Eskola bakoitzak bere proiektua; zuzendaritza prestatua, irakasleriaren kontratazioa propioa, proiektuari erantzungo diotenak; irakasleriaren prestakuntza, bokazioa... eredu berritzaileak. Komunitatean hezi: denok gara hezitzaile eta hezigarri. Familiak, eskolak, kultura, kirola, sare sozialak, komunikabideak...

Adostea zein izan behar duen Euskal Hezkuntza Sistemaren zorua, ardatz nagusia, eta hortik abiatzea ikastetxeka, tokian tokiko autonomia (hezkuntza proiektua, gainerako erakundeekin harremana, irakasleak kontratatzeko irizpideak...). Aipatzen diren ereduak sortzeko oso garrantzitsutzat jo da munduko hezkuntza ereduak aztertzea, ezagutzea. Ebidentzia zientifikoetan oinarrituta, gure eredu propioa eraiki ahal izango dugu.

Gobernantza eredu komunitarioa bultzatu behar da, agente desberdinen ahotsa kontuan izanik (hezkuntza ez-formala ere). Kultura demokratikoa falta zaigu. Parte hartzeko kultura sustatzea, eta kultura hori zehazteko zein bide erabili adostea. Komunitatearen inplikazioa; nola ikusarazi guztiok parte hartu behar dugula hezkuntza-sisteman; Irakasleei euren ikasketetan parte hartzeko kulturaren prestatzea, baita ikasleei ere txikitatik eskoletan. Erronka da lidergo horizontaletarako jendea formatzea eta konbentzitzea. Baita euskal gizartearen autonomia kritikoari beldurra kendu ere.

Era berean, **zuzendaritzarako trantsizioa** bermatzea. Izan ere, ez dugu ikasi zuzendari izateko, eta prestakuntzarik gabe, arazo asko konpondu behar izaten ditugu.

Sare indartsu bat sortzea gizartean dauden eragile guztiekin; enpresa, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, kale-hezitzaileak, gazteekin lan egiten duten erakundeak, finantziario-iturriak. Denak baitu zerikusia hezkuntzarekin. Adibidez, enpresetan lidergo-eredua aldatzen ari da eta hori ikastetxeetan landu beharko litzateke).

Ikastetxeen/taldean tamainaz hausnartu, espazio fisikoaz, kokapenez (herrian, eskualdean) Zer egin ikastetxe motekin publiko/kontzertatu/pribatu? Publikoa sustatu

Lurraldeen arteko banaketa administrazioa beste auzi bat bada ere, hezkuntzaren bitartez lurralde hauen artean harremanetarako kanalak sor daitezke. Ikasle trukeak, ikastetxeen topaketak...

Urgentziaz aukera berdintasuna jarri behar dugu euskal herritar guztien esku, baina ikuspegi komunitariotik. Gure herrietako hezkuntza komunitate sendo eta aktiboak errotuz, modu autonomoan lan egin dezaten.

Irekian egindako ekarpenak:

Komunitateko kideen arteko **elkarlanari** dagokionez, zuloa dago irakasleen eta ikasleen artean. Irakasleen joan-etorriak ere ez du laguntzen, baina ez da ikasle/irakasleen arteko arrakala soilik. Aitortza-kontua da gehiago, ez prestigio kontua. Egun, “hezkuntza-komunitatea” lelo bezala erabiltzen dugu, baina mamu bat da, ez dago komunitate izaerarik. Harreman mamitsua edo positiboa izan behar dugu komunitateko kideen artean, eta elkarrekintza da helburua, kide guztien arteko elkarlana. Hor dago txip aldaketa. Etorkizuna eta oraina ditugu gure esku. Denok gara emozio-zakua eta inplikatzeko ezinbestekoa da kideek eskola bere sentitzea; eta horretarako, eskolako ateak irekitzea, gertutasuna azaltzea. Marko komun bat oinarri edo helburu eta printzipio bateratu batzuen aterkipean, eskola-komunitateen autonomia sustatu beharko litzateke, baina nola egin? Oreka bilatu behar da.

Hezkuntza-sistemaren **hausnarketa partekatua** egitean marko komuna lantzeaz gain, eskola-komunitatearen autonomia eztabaidatu behar da:

- Zein da aktore bakoitzaren papera eta funtzioa?
- Gobernuak markoa babestu eta hau lortzeko baliabideak eman beharko lituzkete eta konpetentzia udalerriek beharko lukete izan, eskola-komunitatearekin zuzeneko lana eginez eta tokian tokiko beharretara egokituz (kontratazioak, programazioa...)
- Honelako eraldaketa baten denbora eskatzen du, baita bitartekoak ere, egonkortasuna eta iraunkortasuna beharrezkoak baitira.
- Bide honetan erresistentziak topatuko ditugu, hortaz, pausuz pausu joan beharko da proiektu pilotuak abiatuz, formazioa eraldatuz eta bateratuz... Formazio alorrean, arreta berezia eskatzen du mugaz gaindiko.

Arazo psikologikoei dagokienez, mentalki gaixo dauden ikasle dezente daudela aipatu da, eta sarri, gurasoek ere arazoak dituzte. Irakasleok ez gara adituak horretan. Gizartearen erronka da arazo horri erantzutea eta garrantzitsua da **arazoen prebentzioan** gastatzea energia, ez ondoren (adibidez, bullying-aren prebentzioan...).

Arestian aipatutako helburu eta printzipio horien arabera eta **eskola-komunitateari ematen zaion autonomia** mailaren arabera antolamendua desberdina izan beharko litzateke. Testuinguru honetan, hurrengo aspektuak aipatu dira: hezkuntza-sistemak horizontalagoa beharko luke, hasi hezkuntza-politiken definiziotik eskola barruko antolaketa arte; ikasgaiak albo batera utzi eta proiektuak egin beharko litzateke lan; Honek baina ikasle kopurua edo ratioak berrikustea eskatzen du, baliabide gehiago jartzea, eskolan orain arte aurreikusi gabeko profesionalak batzea, ikastetxe eta espazioak egokitzea, eskolen kokapena eztabaidatzea; ildo berean, teknologiaren erabileraren inguruko eztabaida egiteko dago; irakasleen prestakuntza eta lan-mundurako sarbidea birpentsatu beharko litzateke, baita kontratazio-eredua, lan-baldintzak... Eta hau aurrera eramateko gaur egungo kontestua egokia izan daiteke, izan ere irakaslerian belaunaldi-aldaketa beteak baikaude.

Elementu hauen baturak, hau da, **hausnarketa etengabe eta partekatua** eta eskola-komunitatearen antolaketa berriak, zein autonomia mailak eskola publiko, kontzertatu eta erlijiosoen arteko lehia eta konpetentzia gainditzeko lagundu beharko luke.

Kasu askotan, baliabideen kudeaketa izan da arazo handietako bat, izan ere antolaketa eredu okerragatik baliabide hauek ez dira ondo erabiltzen (hala ere baliabideak badaudela azpimarratu da). Gaiarekin amaitzeko, eskola txikiak erreferentziatzat hartu behar ditugula aipatu da.

Bestalde, Euskal Herriko hezkuntza antolaketaren inguruan hitz egitea ez da erreza **iparralde eta hegoaldearen** artean izugarritzko desberdintasunak daudelako. Alde batetik, iparraldean hezkuntza sistema guztiz zentralizatua izateak arazoak ekartzen dizkigu euskal eskola publikoaren antolaketan pentsatzerako orduan. Bestetik, hegoaldeko hezkuntza zerbitzuaren zati handi bat esku pribatuetan egoteak unibertsitateak adibidez), eraldaketarako bidean oztopo handia suposatzen du.

Publikotasun kontzeptua birdefinitzeko beharra dagoela ondorioztatu da, baita interes soziala duten eskola horiek identifikatzekoa ere. Izan ere, kontzertatuak diren horiek ituntzeko joera egon da, era berean interes sozialik ez duten eskola publikoak egotea arazo handia da.

Zuzendaritzen egoeraz aritu gara ere, gaur egun **krisi larrian** daudela komentatu da, eta horietan ekipo eta lidergo indartsuak faltan ezin izango zaie aurre egin beste arloei. Zuzendaritza hartzeko formazioa behar da, zuzendaritza lanetan aritzen diren askok eta askok ez dute euren burua horretarako gai ikusten (“nik matematikaz eta horren irakaskuntzaz dakit, ez kudeaketaz”). Arazoek/egoerek ertz asko dituztela hainbeste errepikatzen dugun honetan, ezin da ulertu horietan esku-hartzeko erantzun zatikatuak ematen jarraitzea: udalek hezkuntza-sailarekin, hirigintzarekin... eta beste hainbatekin hitz egin beharko lukete. Baina egiturek, egun, ez dute horretarako ematen. Adibidez: EHUko master propioek ez dute puntuatzen administrazioan (eta, hortaz, hezkuntza publikoan) lan egiteko, euskal errealitateari begiratzen eta erantzuten diotenak izanik (Madrilen kontrolpetik ez baitira pasatzen)

Taldearen ustez eskolak ezin ditu gizartearen arazo guztiak beregain hartu, ezin da hori espero eta ezin da horrela funtzionatu. Honen atzean Hezkuntzaren Ikuspegi zaharkitua dagoela diote.

Hezkuntza Sistema Eskola baino zer edo zer zabalagoa da eta beste gai horiek bertan landu behar dira, esaterako, aisialdian ea. Eskolaren abantaila espazio fisikoa dela, bertan dagoela, kokatu daitekeela diote eta eskolaren helburua **berdintasuna eskaintzea** dela, ezberdintasunak nibelatzea.

Eta azkenik, atal honetan sortu genuen hitz gakoien hodeia:

Motz gabiltza **pentsemendu sinbolikoan**. Kontzentratzeko ahalmena, entzuten jakitea, eta besteekiko sentsibilitatea izatea garrantzitsuak dira.

Ezagutzaren transmisioaren monopolioa apurtu da. Homogeneizazioa bultzatu behar da nazio ikuspegitik. Zer da partekatu behar duguna? Adostasun edo helburuei dagokienez, zer nahi dugun jakiteko elkarlana behar dela aipatu da. Irakaskuntza ezagutzan soilik oinarritu beharrez gaitasunak landu beharko genituzke, eredu berriak ikasi behar ditugu. Honez gain politikoki egokia denaz haratago joan behar dugu eta kritikotasuna txertatzen jakin behar dugu.

Teknologien papera birpentsatzearen ideia mahai gaineratu da. Teknologien bidez, ez dira arazoak konpontzen ari, honek konponbide bat baino arazo gehiago ikusarazi ditu. Birtuala eta ez birtualaren arteko uztarketa behar da, hauen bitartez ikasleei bide berriak erakutsi ahal izateko, gauza berdina ordenagailuen bidez egin beharrez.

Hezkuntzaren dimentsioen inguruan ideia hauek atera dira: ikaskuntza bizitza guztiko prozesu eta garapen bezala ulertu behar da eta ez momentu jakin batean eta espazio jakin batean lortutako jakintza, hau da “Eskola eskolatik atera behar da”. Era honetan, beste dimentsio batzuei (familia, lagun artea, aisialdia...) beste ikuspuntu batetik begiratzea ahalbidetuko digu, baita ezagutzaren iturri desberdinak identifikatu ere. Hortaz, Tokiak, lurraldeak eta komunitateak osatzen duten ezagutza transmititu behar da; inguru hurbilaren garrantzia azpimarratu. Ezagutzaren eraikuntza kolektiboa erdigunera ekarri, baita begirada diziplinartekoa ere.

Etorkizuneko testuingurua irudikatu eta zehaztu (10-20 urte barru) jakiteko zeintzuk diren herritar horiek beharko dituzten gaitasunak.

Hezitzaileen formazioari garrantzia eman eta humanitateek hezkuntzan galdu duten lekua birpentsatzea eta birkokatzea. Hezkuntzan sustatzen diren ibilbide batzuek eredu produktibista dute oinarri edo helmuga, lan-irteera bat eta lanbide-eredu bat. Eredu produktibista eta lehiakor hori birpentsatu behar da eta horretarako “ezagutza funtzional” eta “ezagutza ez-funtzional” kontzeptuak birpentsatu.

Gizarte-eraldaketa helburu duen ezagutza sortzeko egiturak edo bilguneak sortu. Ezagutzaren gizartean iparra jarri hezkuntzaren bidez, hezkuntzaren etika sendotu (1) planetaren jasangarritasuna (2) pertsonen berdintasuna eta aniztasuna. Haurrak beren barruarekin konektatuta hezi, munduarekin modu sano batean konektatu ahal izateko.

ERRONKAK

Irakasle bakoitzak, ikastetxe bakoitzak eta hezkuntza-komunitate bakoitzak argi izan behar du zergatik irakasten den irakasten dena eta ez beste zerbait. Gizarte-eredu bat balioztatzen dugu eta beste bat ezkututzen da, eta horrek gizartea baldintzatzen du. Adibidez, pandemiak zaintza erdigunean jarri du, baina non dago zaintza hezkuntzan?

Hortaz, aurrekoarekin lotuta, **moldeak aldatzea**, eraldaketa beharrezkoa da. Curriculumaren eta curriculum ezkutuaren bidez erreproduzitzen dugun errealitateaz hausnartu behar dugu: zuria, hetero-normatiboa, aberatsa, maskulinoa da. Era berean, ikaslea subjektu gisa hartzea. Pertsonak izatea erdigunean, ez edukiak. Eskola ireki behar da pertsona bakoitzaren interesetara. Hau da, eskolak atea ireki behar ditu eta ikasleen benetako beharrez eta interesen atzetik joan behar du (zientziara, kulturara iristeko).

Bestalde, **herri gisa** nola proiektatu nahi garen erabaki beharko genuke eta norabide horretan baliabideak jarri.

Gaitasun sozialak garatzea. Jakintzak bai, baina abilitade edo konpetentzia ere eskuratzea. Harremanetarako gaitasuna duten, erabakitzen dakiten eta seguruak diren ikasleak heztea. Ondorengo ezagutzak ere aipatu dira: hizkuntzak eta komunikazio gaitasuna (euskara, gaztelania, atzerriko hizkuntzak, hizkuntza matematikoa, musika, teknologia berriak, publikoak hitz egitea, argudioak ematea...); pertsonen izaera eta funtzionamendua (identitate eraikuntza, harremanen funtzionamendua, enpatia, komunikazio asertiboa eta harremanetarako gaitasunak) (psikologikoa, antropologia, historia, gizartea...); erabakiak hartzea (prozesua, dilema etikoak...); eta informazio kudeatzen aztertzen kritiko izatea). Garapen intelektuala, emozionala eta soziala maila berean landu behar dira. Galderaren pedagogian sakondu. Eredu pedagogikoak landu eta elikatu.

Teknologiaren inguruko sentsibilizazio programa bat eraiki. Teknologia berriak erabilpenean gazteak gidatu eta baliabideak eskaini. Era berean, garapen intelektuala, emozionala eta soziala dira helburu. Nola babestu familiak digitalizazio prozesuetan?

Ezagutza sareak. Eskoletan ezin da guztia ikasi, irakaskuntza eskoletatik kanpo ere ematen da. Eskolak errealitate horretan egokitu behar dira. Ikastetxeetako ateak ireki.

Ezagutza elkarlanean elkarrekin eztabaidatuz sortzen da. Ideia hori ikastetxeen dimentsio guztietan egokitu beharko litzateke. Haurrak irakasle guztienak dira, ez da irakasle bakar baten ardura

Irekian egindako ekarpenak:

Ezagutza

Karrera teknikoei bestelako ezagutzak gehitu behar zaizkie. Izan ere, heziketa digitala eskaini behar du hezkuntzak: tresna digitalak ez ezik, hauen erabilera kritikoa. Aldi berean, ebaluaziorako prozedurek ere kuantitatiboegiak izateri utzi behar diete.

Ezagutzaren etikotasuna landu behar da: Etika bizi egin behar da, testuinguru egokia behar du, eta egungo eskolak ez du laguntzen. Makro eskola ereduak gatazkarako testuingurua sortzen du, ez etika eta elkarrekiko errespetua lantzeko testuingurua. Eskola txikien ereduak bestelakoa da, eta bertan aukera gehiago ematen dira etikan sakontzeko.

Irakurzaletasuna sustatzeko moduez dezente hitz egin da. Izan ere, irakurketa faltarekin arazoak daude pentsamendu kritikoa garatzeko. Zer eskaintzen diegu ikasleei irakurtzeko? Nola sustatu irakurzaletasuna? Arrakala handia dago nesken eta mutilen artean. Adib. Nola planteatu daiteke "Lili" obra DBH4ko irakurketa-liburu bezala, irakurtzera ohituta ez badaude?

Eskola batzuetan, egunero, 20 minutu eskaintzen dizkiote irakurketa libreari LH3 eta LH6 bitarteko ikasle eta irakasleek. Garrantzitsua da irakurketa ariketa bezala planteatzea eta pentsamendu edo iritzi kritikoa sustatuz, eta ez orain arte bezala, liburua irakurri eta horri buruzko azterketa eginez.

Hezkuntzak pertsonaren garapena bilatu behar du eta hortaz, eta batik bat oinarritzko eta derrigorrezko hezkuntzan haurrak, nerabeak eta gazteak erdigunean jarri behar dira. Euren gaitasunetan eragin behar da errespetua oinarri duten pertsona kritikoa heziz. Hortaz,

- Harremanak mahai gainean jarri behar dira, identitatea, enpatia... landuaz
- Komunikazio-gaitasunak landu behar dira, gaitasun digitalak
- Teknologia erabiltzen irakatsi behar zaie eta euren burua babesten ikasi
- Bizikidetzarako dilema-etikoak aurkeztu behar zaizkie
- Erabakien aurrean irakurketa kritikoa sustatu
- Jakinmina piztu behar zaie, sormena garatu

Behinik behin, eduki kontzeptualak mantendu behar dira baina honetarako legitimoak diren edukiak birpentsatu behar dira. Sarritan eduki batzuk barneratzeari izugarrizko garrantzia ematen zaielako, luzera erabiliko ez dituztenean (adibide bezala matematiketako X eta Y atera dira), horregatik erakusten diren edukietan lehentasunak jartzea beharrezkoa da. Edukiarekin jarraituz, orain dela urte askoko oinarriekin jarraitzen dugu eta aldaketa sakonak behar dugu, hauek hezkuntzako profesionalekin egin behar dira.

Azkenik, edukietan lehentasunak zehazteaz gain umeen testuingurua kontuan hartzea eta hauen beharretan lehentasunak ezartzea premia handia duen behar bat da. Izan ere, gero eta kasu gehiago daude non umeak eskolera jan gabe edo beharrezko higiena izan gabe dauden, horregatik hezkuntza sistemaren ardura izan beharko litzake behar hauek asetu ahal izateko baldintzak prestatzea, baita behar berriak identifikatu eta hauetara egokitzen jakitea.

Erreferente bila, Iparraldera begiratzeko beharra komentatu da, ezagutzak, ahozkoa, filosofia... Dena den, etengabeko ikaskuntzaren ideia aldea agertu dira behin baino gehiagotan, baita ikastetxetik haratago joan beharra ere.

Ezagutzak lantzerakoan pentsaera kritikoa oinarri eduki behar da, galdetzea ikasiz. Oinarrizkoak diren prozedura guztiak kontutan eduki behar dira. Ze gramatika dugu? Zein dira ezagutza unibertsalak? Momentua eta egunerokoan errepikatzen den ideia izan beharko genuke hezkuntzan. "Gaur ze galdera egin diogu gure buruari?"

Duela 40 urteko "Saioka" entziklopediak hizpide izan dira. Hauen oinarri eta abiapuntu galderak direla aipatuz, egun proiektuka lan egiten den gisan. Sinestu behar da, irakasleak irakatsi ez, ikasleak ikasten dute. Hezitzaile – hezituan kontzeptuei errepeaso bat eman beharra dago.

Curriculumean gauza gehiegi daude, murriztu beharra dago, ikasi behar dena gutxiago izan behar da. Curriculum ezagutza partekatua eta diziplinartekoa izan behar da. Ezagutza ikuspegi zabal batetik ulertu behar dela, edukiez gain, esperientzian oinarritutako autoezagutza. Adimen anitzak landu behar dira. Ezagutzak erlazionatu

Beraz, garrantzia handia eman diote ezagutzaren ikuspegi zabalean sakontzeari eta ikasleei informazio ugaria ondo kudeatzen erakusteari. Informazioaren Gizartean gu denon arteko bretxa sortzen duena ezagutza edukitzea eta ez edukitzea dela aipatu da eta hori presente eduki behar dela. Teknologia → Gizartearen hanka berri bat da eta hezkuntza horretan alfabetatu behar da, egunerokoan aurrera egiteko: zein adinetan erabili, noiz, nola, zertarako? Arriskua: Tresnei lehentasuna emanez, gaien, arloen... benetako mamia alboratzen dela komentatu da. Beraz, OREKAren garrantzia aipatu da:

Tresnak. Teknologia. Zientzia ↔ Baloreak. Gizarte Zientziak

Teknologia muga bihurtzen bada, baloreei eta Gizarte Zientziei eman behar zaie garrantzia.

Gizartea

Halaber, ezagutza planteamendu hauen aurrean gizartean, familietan ikara eta izua da nagusi, horregatik beharrezkoa da eredu berriak izatea. Eraldaketa honetan unibertsitateak akonpainamendua egin beharko luke, ikerketak sustatu, proiektu pilotuak planteatu... Eta gizartearen eta familien inplikazioa hasieratik bermatu beharko litzateke, hau da, diseinutik, dituzten erresistentzia eta beldurrak uxatzeko.

Zer nolako gizartea nahi dugu? Zer nolako pertsonak nahi ditugu?

Bizipen eta esperientziatik ikasi beharko litzateke. Eta honen garapenean garrantzizkoa da beste ardatzetan aipatutako komunitatearen elkarlana bermatzea. Bide batez, eskolari presioa kenduko genioke.

Eraldaketa guzti hau eusteko sostengua beharko du, hau da, baten batek hartu beharko du lidergoa. Ardura maila desberdina dauden heinean bakoitzak bere bidea egin beharko du, denak aldi berean eta paralelo ahal bada, guztiak eredu berdinerara edo bateratu batera iristeko. Honetarako beraz, baldintzak sortu behar dira eta baliabideak eskaini.

Gizarte globalizatu eta super informatu batean bizitzeak erronka asko jartzen dizkio hezkuntzari, “Zergatik ikasiko ditugu X eduki, horiek denak interneten badaude?”, honen aurrean hezkuntzaren ardatzak zeintzuk diren identifikatzen jakin behar dugu baita hauek garatzen ere.

Horrez gain, hezkuntzaren alorrean bi ikuspuntu daudela aipatu da: eskuinetik datorrena eta ezkerretik datorrena. Lehenengoari dagokionez, meritukrazian sinisten duen ikuspuntua litzake, bigarrena aldiz ez litzake horrenbeste lehenengo ikuspuntutik aldentuko, izan ere gero eta zati ezkertiar handiago batek gazteekin ez dagoela zer eginik uste du eta hezkuntzak ez duela hauekin funtzionatzen. Eta diskurtso honek, kalte handia egiten dio langile klaseari, izan ere momentu honetan kapitala oso interesatua dago eskoletan, ikasle hauek etorkizuneko langileak izango baitira, eta jada badabilta enpresen inguruko diskurtso oso indartsua sortzen, non enpresak langile perfil berrietara egokitzen diren. Honen aurrean, hezkuntzaren helburuetako bat ikaslea enpresa eraldatuko duena izan behar da eta ez enpresa ikaslea eraldatzen duena

Azkartasuna, berehalakotasunaren kontra NAHITA lan egin behar dela uste dute. Abiadura horrek, gizarte osoarena denak, antsietate handia sortzen duela eta ikasleei gestionatzen erakutsi behar zaiela aipatu da Eskolak gaur eguneko balio neoliberaleri aurre egiteko gunea bilakatu behar da, patxadaz, hausnarketa erabili eta gogoeta lantzeko eremu libre.

Naturarekiko harremana izatearen garrantzia. Gizakia bertan eta bertatik bizitzetik, belaulaldi berrientzat ezezaguna izatera pasa da. Naturarekin harremana haustea akats handia da.

Hementxe jasotzen da atal honen hitz gakoaren hodeia:



3 BALORAZIOA

Jarraian, saio osoko balorazio fitxan jasotakoak laburbiltzen dira:

	1	2	3	4	5
Foroaren antolaketa			5	32	53
Erabilitako metodologia			5	27	58
Gaiaren interesa			1	15	74
Gaiaren eztabaidarako edukiaren planteamendu egokia		2	12	39	37
Giroa				16	74

HOBETZEKO:

➤ INDARGUNE ETA AUKERAK

Parte hartzaileen aniztasuna
 Adostasun maila altua
 Elkarrekin hausnartzeko aukera
 Jende berria ezagutzeko parada
 Jarrera irekia
 Esperientzien partekatzea
 Hezkuntza sistema osoa hobetzeko konpromisoa
 Talde txikitan iritziak partekatu
 Dinamizazioa oso lagungarria
 Zorionak!!

➤ AHALGUNEAK

Jende gehiago, gazteak
 Eztabaidarako tarte gutxi
 Catering falta
 Metodologia aktiboagoa
 Jende guztia gela berdinean sortzen duen harrabotsa
 Tokia, entzuteko zailtasunak
 Gaiak zehatzagoak, ez hain zabalak
 Aurkezpen errondan ondo azaltzea lanpostua edo zein erakundetik gatozen
 Beste taldeetan komentatzen dena ez jasotzea
 Galdera konplexuak, zailtasunak hirugarren ardatza ulertzeko
 Agian bidalitako informazioa ez zen oso ondo ulertzen
 Kokatzeko hitzaurrea jasotako dokumentaziotik harago joatea faltan bota

➤ **OHARRAK ETA IRADOKIZUNAK**

Kafea eskaini
Gela txikia, talde bakoitza gela batean
Denbora gehiago eskaini gai bakoitzari
Kafetegian arazoa kafearekin

PROZESUAREN SOSTENGURAKO

➤ **PROZESUAN PARTE HARTZEKO INTERESA**

Gehienak parte hartzeko gogoia adierazi dute

➤ **ZEIN PERTSONA ERAKUNDE GEHITU**

Sindikatuak, ikasleak, eskola zentroen sarea, udaletxeak, Foru Aldundiak, hezkuntza ez formalean jarduten dutenak, EHUko ikasleen ordezkariak, Guraso elkarteetako ordezkariak.

EUSKO IKASKUNTZA

➤ **EUSKO IKASKUNTZAREN IRUDIA**

Orokorrean oso irudi ona baina urruti xamar dagoen erakundea dela ere aipatu da

➤ **BAZKIDE**

Gehienak badira, ez direnak ez dute erantzun edo zuzenean oraingoz ez bota dute, baina batzuk proiektua laguntzeko aukerari BAI erantzun diote eta bere e-posta idatzi dute.